



**Arartekoaren 2016R-1264-16 Ebazpena, 2016ko urriaren 3koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan YYYren izenean egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia.**

### Aurrekariak

1. XXXek, 2016-2017 ikasturterako egindako onarpen prozesuan parte-hartu zuen bi urteko adinez txikiko YYYren amak, kexa baten harira jo zuen erakunde honetara Arabako Onarpenen Lurralde Batzordeak 3 puntu kendu zizkiolako etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion 5 puntuetatik.

Kexa aurkeztu zuenetik egun gutxira, interesdunak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Arabako lurralde ordezkariaren 2016ko ekainaren 14ko ebazpenaren kopia bat eman zion erakunde honi. Ebazpen horren bidez, Onarpen Bermeen Lurralde Batzordearen aipatu erabakiaren aurka kexagileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa atzera bota zen.

2. Kexa izapidetzeko onespina hitzartu ondoren, Arartekoak ebazpen horren edukiaren aurretiko azterlana egin zuen. Hainbat balorazio ondorioztatu ziren aipatu azterlanean eta horiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei helarazi genizkien. Hori egiterakoan, aipatu balorazioen gainean arduradunek zituzten iritziak jakitearen zain gelditu ginen eta balorazio horiek kexan kexagile denak jarritako errekurtsioari emandako trataera berriz aztertzekeo zio izan zitezkeela jabetu ginen.

Jarraian, balorazio horien zati bat azaltzen dugu hitzez hitz:

*“Ebazpenaren edukia aztertu dugu. Bederatzigarren oinarrian honakoa berriro nabarmendu da: “lo que sí resulta relevante, a nuestros efectos, es que en un procedimiento de concurrencia competitiva como es el de admisión de alumnado en Centros que no disponen de suficiente oferta de plazas como para cubrir la demanda, la asignación de la puntuación máxima de 5 puntos por el criterio de proximidad del domicilio debe corresponder a quienes acrediten esa residencia efectiva y real de manera clara, indudable...”, aipatutako egoitza izateko eskakizuna ere jarraian gehitzen duela. “con una permanencia o antelación temporal suficiente respecto de otros que han trasladado recentísimamente su domicilio a esa área de influencia”.*





Izan ere, azken batean, argudio horrekin justifikatu da errekursoaren gaitzespena. Interesdunak emandako dokumentazioaren inguruko aipamen labur bat egin ondoren, aurkeztutako dokumentuekin zera gertatzen dela dio amaitzeko: *“acreditan un empadronamiento y residencia muy recientes en la vivienda de la Plaza AAA”*.

Argi dago, erakunde gisa, zeharo ados gaudela hezkuntza-administrazio horrek kontuan omen dituen kontu eta eskakizunarekin, familiaren egoitzaren hurbiltasunari dagokion puntuazioa bat etor dadin, hain zuzen ere, benetako eta egiazko egoitzarekin. Helburu horri zuzendu izan zaizkio, azken batean, azken urte hauetan behin eta berriro egin ditugun gomendio eta iradokizunak ikasleak onartzearen inguruko arlo horretan. Dena dela, adierazi behar dugu harritu gaituela hezkuntza-administrazio horrek unean bertan eskatzea egoitza horrek denbora-aurrerapen nahikoa izan behar duela.

Horri dagokionez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko abenduaren 10eko agindua kontsultatu dugu, eskaerak aurkezteko eta onartzeko epeen egutegi komuna ezarri duenak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe dauden ikastetxe publikoetan zein Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatu hitzartuetan 2016-2017 ikasturtean ikasleak onartzeko jarraibideak onetsi dituenak, eta bertan ez da ezer adierazten honen inguruan. Onartutako jarraibideek honakoa ezarri dute: *“ulertuko da ikaslea eta aita, ama edota legezko tutorea bizi diren etxea dela familiaren bizilekua. Kasu horretan, ikaslearen eta guraso edota tutoreen errolda-agiria aurkeztuko da familiaren bizilekua egiaztatzeko”*. (hamabigarren oinarria- bigarren puntua). Ez dute inolako denbora-eskakizunik.

Hori dela eta, hezkuntza administrazio horrek erabakitakoak kezkatzen gaitu, hau da, eskaera aurrerapen nahikoarekin egin ez izanak bakarrik (ez da zehazki adierazi, gainera) berekin ekar lezakeela, bestelako egiaztatze daturik gabe, bizileku-presuntzioa indargabetzea, nahiz eta errolda-ziurtagiriekin horixe jaso. Gure iritziz, benetako eta egiazko egoitza aurretik eskatzea, familiek eskabideak aurkezteko epearen barruan horixe egiaztatu ahal izan badute ere, guztiz eztabaidagarria izan daiteke. Izan ere, administrazioaren edozein ekintzak izan beharko zukeen babes juridikoa falta du, beti beharrezko eta derrigorrezkoa dena, nahiz eta ekintza hori batzordeak arbitrariotasunik gabeko zentzuzko jokabidea bermatzeko helburuarekin onartutako eta ondoren aplikatutako irizpide objektibo baten emaitza izan”.

3. Hezkuntza arduradunek erantzuna eman diote Arartekoak egindako errekerimenduari eta Arabako Hezkuntzako lurralde ordezkariaren txosten bat bidali diote erakunde honi. Honako hau azaltzen da txostenean:

*“Arabako Onartzeko Bermeen Batzordeak, erroldatze-ziurtagiriak direla-eta ikasleak onartzeko prozeduretan salatu edota antzemandako irregulartasunak ikusita eta adierazitako helbideak benetakoak diren egiaztatzeko hezkuntza-administrazioak ardura eta konpromiso handiagoa bere gain hartzeko Arartekoak behin eta berriro gomendioak eman dituela kontuan*





*hartuta, 2016ko apirilaren 20ko bileran akordio hau hartu zuen: familiek aurkeztutako erroldatze-datuak, beharrezkotzat jotzen den kasuetan, egiaztatze eta erroldaren datuak eta eskatzaileen benetako helbideak bat datozela egiaztatze neurriak hartzeko proposamenari lurralde Ordezkaritzari egitea. Behar izanez gero, kenduko dira ikastetxearen eta familia-helbidearen arteko hurbiltasunarengatik baremoaren puntuak.*

*Ikaslea ikastetxean onartzeko eskaeran agertzen zen helbidean, bere familiarekin, benetan bizi zela era fidagarriagoan egiaztatzea exijitzeko, Bermeen Lurralde Batzordeak 2015eko iraileko denbora-muga ezarri zuen. Horiek horrela, ikastetxe askoren aspaldiko eskaera bati,- zonaldean sustraitutako ikasleak beste eremu batzuetara ez aldatzeko neurriak erreklamatzeko zituzten,- ematen zitzaion erantzuna. Beste hezkuntza-administrazio batzuek irizpide horren arabera jokatu dute ikasleak onartzeko prozesuan.*

*Hau adierazi behar dugu: helbidean eskaera egin baino lehenago behar den denboran bizi ez izana maniobra artifizial edo irregularraren zantzua izan daitekeela baloratu du Bermeen Batzordeak baina ez du inolaz ere eskaeran agertzen den helbidea egiazkoa ez dela frogatzeko modukoa denik uste.*

*Erreklamazio-egile honen kasu konkretuan, alegazio esanguratsuena ohiko etxebizitzatik AAA plazako amaren helbidera aldatu izanari buruzkoa da, idazkian azaltzen dituen arrazoi pertsonalengatik. Helbide-aldaketa hori eta erroldatze-aldaketa 2015eko urrian egin ziren.*

*Puntu batzuk deigarri egiten zaizkigu: interesatuak aipatzen duen jabetza-eskritura 2002. urtekoa da, adin txikikoari, jaiotzean, aita eta amarekin batera BBB kaleko familia-helbidean erroldatu zitzaion, igogailurik gabeko lau pisuen arazoa dela-eta XXXek kontatzen duen arazoa gorabehera, eta 2015-10-0?ra arte jarraitu zuen helbide horretan, hortik Aurrera, aita ez bezala, ama-semeak errolda aldatu zuten.*

*Hezkuntza-administrazio honek ezin du helbidez aldatzera eraman dituen familiaren egoera inolaz ere baloratu baina adin txikikoa erroldatze-ziurtagirian agertzen den helbidean benetan bizi dela, gurasoekin, familiak ez duela egiaztatu interpretatzen dugu”.*





## Gogoetak

1. Azken urteetan, diru publikoarekin sostengatutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuei buruzko kexa kopuru esanguratsua izapidetu ditu Arartekoaren erakundeak eta, hori dela eta, honako gomendioa egin behar izan die erkidegoko hezkuntza administrazioa gidatzeaz arduratu diren hurrenez hurreneko taldeei: familiek aitortutako etxebizitzak errealitatearekin bat etorri eta ikastetxeetatik hurbil daudela ziurtatzen lagunduko duten neurriak har ditzatela, eta hezkuntza administrazioako arduradunek salatutako kasuetan bere egin dezatela aitortutako etxebizitzaren errealitatea modu eraginkor batean egiaztatzeko konpromiso berezia. Arartekoak behar bezala jakinarazi dio horren berri Eusko Legebiltzarrari urteko hurrenez hurreneko txostenetan.
2. Ikasleak onartzeko araudian aldaketak sartzeko aukera aztertzeke zuten asmoaren berri eman zioten Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek erakunde honi eta, horren adierazgarri, urteroko jarraibideetan berariazko aurreikuspen bat gehitzeko beren nahia jakinarazi zuten. Aurreikuspen horren bidez, hezkuntza administrazioa gaituko zen aurkeztutako agirien egiazkotasuna uneoro egiaztatzeke. Era berean, berariazko ohar bat gaineratzeko zuten asmoa jakinarazi zuten, erroldatze agiria faltsua dela egiaztatzen bada, alde aurretik salaketa bat eta organo eskudunak jaulkitako egiaztagiriri ofizial bat egonik, bai agiria aizundu delako, bai erroldan erregistratutako datuak aldatu direlako, hezkuntza administrazioak, aurretik eskatzaileari entzunda, baremoaren atal honi dagozkion puntuak gutxituko ditu.
3. Egungo hezkuntza arduradunek erakunde honi iragarritakoa bete eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko abenduaren 10eko Aginduan zehaztutako aurreikuspenak sartu dituztela aitortu behar da. Horren bidez, onarpen eskaerak eta epeak aurkezteke egutegi komuna ezarri da eta 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko jarraibideak onetsi dira.

Are gehiago, hezkuntza arduradunek ere praktikara eraman dute jarraibide horietan agindutakoa. Interesdunak ezarritako gora jotzeko errekurtsua ebazteke Hezkuntzako lurralde ordezkariaren 2016o ekainaren 14ko ebazpenean azaldutakoaren arabera: *“la Comisión Territorial de Garantías de Admisión, en su reunión de 20 de abril de 2016, ante las irregularidades denunciadas y/o detectadas en los procedimientos de admisión de alumnos y alumnas a cuenta de los certificados de empadronamiento, adoptó, al amparo de las funciones que le atribuye el artículo 13.2 del Decreto 35/2008, de 4 de marzo, el Acuerdo de proponer a la Delegación Territorial que se verifiquen los datos de empadronamiento aportados por las familias en los casos que así se considere necesario, y que se adopten las medidas oportunas para comprobar*





*que los datos del Padrón se ajustan a la residencia efectiva de los solicitantes, incluyendo en su caso la correspondiente minoración de los puntos relativos al baremo de proximidad al domicilio familiar, esto es, de 5 a 2 puntos por este criterio".*

Ulertuko denez, Arartekoak ezin du adostasun handiagorik agertu erabaki horrekin, erakunde honek behin eta berriz gomendatutakoa betetzea baitakar. Hala eta guztiz ere, egindako gomendioak azkenean aintzat hartu izana ez da oztopoa, herritarren erreklamazioen aurkezpenaren aurrean, horrelako lege-aurreikuspenak aplikatzean berariazko erabakiak zuzenbidearen arabera egokitu diren aztertu behar izateko, jarraian egingo den bezalaxe.

4. Arreta eskuartean dugun kexa eragin duen kasuan jarriz, ezer baino lehen, aitortu eta nabarmendu beharra dago Onarpen Bermeen Batzordeak irizpide objektiboak ezartzeko orduan erakutsitako ardura adostutako egiaztapen hitzarmena behar bezala gauzatzeko. Irizpide horien artean dago, besteak beste, errolda-inkripzioaren gutxieneko antzinatasuna kontuan hartzearena.

Hain zuzen, ordezkariaren 2016ko ekainaren 14ko ebazpenean azaltzen den moduan, beste erabaki batzuen artean, honakoa adierazten zuen bat hartu zuen: *"Se examinarán con especial atención las solicitudes en las que se hayan observado cambios de empadronamiento en fechas próximas al inicio del procedimiento de admisión de alumnos y alumnas que pudieran hacer sospechar que tales cambios son, en realidad, maniobras artificiosas cuyo objeto no es otro que conseguir la puntuación máxima de 5 puntos en el baremo de proximidad del domicilio, perjudicando así a solicitantes de buena fe que sí residen efectivamente en el área de influencia del Centro escolar pretendido (...). La Comisión considera que, por las razones ya señaladas, las alteraciones de Padrón que se observen después del comienzo del curso escolar, aproximadamente a partir de mediados de setiembre, deben merecer una sólida acreditación de su realidad para poder asignarles la puntuación máxima de 5 puntos".*

Arartekoak aitortzen du, ordezkariaren ebazpenean ere ongi azaltzen den moduan, aitortutako helbideen errealitatea egiaztatzerako bideratutako irizpidea dela. Haatik, ebazpen horretan bertan adierazten den moduan: *"el mero hecho del cambio o alteración padronal en fechas próximas al proceso de matriculación de los menores, si bien puede ser valorado como un indicio de maniobra artificiosa o irregular, no constituye prueba suficiente de la misma. En efecto, la mera existencia de indicios de la no veracidad de los certificados de empadronamiento en el área de influencia del Centro escolar no son por sí mismos suficientes para la minoración de la puntuación otorgada en concepto de proximidad al domicilio. Los certificados de empadronamiento, de acuerdo*





*con el artículo 16.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, constituyen prueba de residencia en el municipio y del domicilio habitual del mismo, sentando una presunción de residencia que no es absoluta, sino de carácter "iuris tantum", esto es, que puede ser desvirtuada con pruebas y argumentos en contrario."*

Aurreko horri dagokionez, bada mementoa aurreratzeko erakunde honen esku-hartzeari erantzunez Arabako Hezkuntzako lurralde ordezkariak emandako erantzunak baieztatzen duela, Arartekoak bere alde aurretiko txostenean adierazten zuen bezalaxe, erroldan alde aurretik denbora nahikoarekin izena eman ez izana, egiaztapenaren datu gehiago gabe, ustez baliagarria izan dela udal-errol-daren ziurtagiriek izatekotan adierazten duten bizitoki izatearen presuntzioa indargabetzeko. Horrela jazo da gutxienez, gure ikusteko moduaren arabera, jarraian agertuko diren gogoetetan azalduko dugun bezala, eskuartearen dugun kexa eragin duen kasuan, emandako erantzunean ordezkariak honakoa birbiltasun handiz azpimarratu eta baieztatu duen arren: *"helbidean eskaera egin baino lehenago behar den denboran bizi ez izana maniobra artifizial edo irregularraren zantzua izan daitekeela baloratu du Bermeen Batzordeak baina ez du inolaz ere eskaeran agertzen den helbidea egiazkoa ez dela frogatzeko modukoa denik uste"*.

5. Kexa eragin duen kasuari berriz helduta, Arabako hezkuntzako lurralde ordezkariaren 2016ko ekainaren 14ko ebazpena irakurriz gero froga daiteke interesdunak aurkeztutako agiri bakar bat ere aintzat ez hartzeko edo ez baloratzeko erabili den behin betiko arrazoia hau dela, bai helbide batzuk egiaztatzeko hitzarmenaren ondoren alegazioetarako hasieran batean emandako izapidean bai eta gora jotzeko errekurtsioan bertan ere bai: agiri guztiek aitortutako etxebizitzan erroldatzea berriki egin dela eta bertara bizitzera berriki joan dela egiaztatzen dutela, nahiz eta benetako bizilekua egiaztatzen ez duten agiriak direla esaten den ere, eskatzaileek beharbada jakinarazpenetarako adierazi duten helbidea jasotzen baitute, hala nola, fakturetarako eta konpainia pribatuekin dauden kontratuetarako edo baita banku-agiriatarako ere.

Aurrekarietan azaldu dugun moduan, ebazpen honi buruz alde aurretik egin zen azterlanaren ondorioz egindako balorazioetan, erakunde honek nabarmendu nahi izan zuen kezkatuta zegoela familiaren etxebizitza alde aurretik inskribatzeko eskaerak beharbada ez zuelako beti beharrezkoa den babes juridikoa (orduan esandakoaz ari gara).

Hala ere, gure jardueraren ondorioz eman diguzuen erantzunean, eransten den gauza bakarra ondoko hau da: *"Puntu batzuk deigarri egiten zaizkigu: interesatuak aipatzen duen jabetza-eskritura 2002. Urtekoa da, adin txikikoari jaiotzean, aita eta amarekin batera BBB kaleko familia-helbidean erroldatu*







*zitzaion, igogailurik gabeko lau pisuen arazoa dela-eta XXXek kontaktzen duen arazoa gorabehera, eta 2015-10-07ra arte jarraitu zuen helbide horretan, hortik Aurrera, aita ez bezala, ama-semeak errolda aldatu zuten”, berriro ere ondorioztatuz hezkuntza-administrazioaren iritziz: “adin txikikoa erroldatze-ziurtagirian agertzen den helbidean benetan bizi dela, gurasoekin, familiak ez duela egiaztatu”.*

Jada aurreratu dugun bezala, erantzun honek agerian jartzen du, errealitatean, hezkuntza administrazioak ez duela egokitu bere jokabidea Onarpen Bermeen Batzordeak ezarritako irizpidera, behintzat atzeko lerroetan zehaztutako baldintzetan. Aitzitik, Arartekoaren ustez, erroldan alde zuzenetik nahikoa denborarekin izena ez eman izana erabili du hezkuntza administrazioak ez bakarrik neurri gabeko eta iruzurrezko jarduketaren adierazgarritzat, baizik eta baita errolda-inskripzioari esleitzen zaion bizileku presuntzioa indargabetzeko frogaren funtsezko iturburutzat ere.

6. Onarpen Bermeen Batzordeak, prozesurako aurkeztutako izen-ematea 2015eko irail ondokoa zela adierazten zuen datuak gidatuta, familia horren benetako bizitokia egiaztatzea beharrezkotzat jo zuenean eta interesdunari egoitzaren egiaztagiria aurkezteko eskatu zionean, hezkuntza administrazioak berak agiri hauek izan zitezkeela adierazi zuen: *“ziurtagiri medikuak, banku-helbideratzeak, ur- edo argindar-fakturak, bizilagunen elkarteko burutzaren ziurtagiriak edo zuzenbidean baliagarri diren beste batzuk izan daitezke”.*

Horrela ulertzen da interesdunak, alegazioetarako eman zitzaion izapidea betetzerakoan, iradoki zitzaizkion agiriak aurkezteko ahalegina egin izana, hau da:

- Ohiko bizilekutzat aitortutako etxebizitzaren titulartasun partekatua (AAA plaza) egiaztatzen duten jaraunspena onartzeko eskrituraren kopia eta jabetza erregistroaren ohar soila.
- Egindako agiriak aitortutako helbidera (AAA plaza) bidaltzen dela adierazten duen Banco Santander entitatearen idazkia.
- 2015eko urritik aurrera XXX bere langileari dagokion dokumentazioa AAAA plaza helbidera bidaltzen dela egiaztatzen duen DDD Elkartearen zuzendariaren idazkia.
- AAA plaza helbidera AXA aseguru entitateak bidalitako jakinarazpena, bere ibilgailuaren aseguruaren ordainagiri berriaren berri ematen duena.
- Interesdunaren kokapena AAA plaza helbidearekin bat datorrela azaltzen duen Osakidetzak jaulkitako pazientearen fitxa.
- Kokapen bera jasotzen duten interesdunaren mediku-hitzorduen jakinarazpenak.





- Bere seme YYYri buruzko dokumentazioa, haren txertaketarekin jazotakoa egiaztatzen duena eta umeak aurreko familia-helbideari esleitutako Osasun Etxeko pediateraren zaintzapean jarraitzearen arrazoiak azaltzen dituena.
- Aurrez okupatutako familia-etxebizitza saltzeko iragarkia, 2015eko urriaren 23an "Idealista" web atarian argitaratua.
- AAA plazako N. zenbakiko jabe-kideen komunitateko administrariak jaulkitako egiaztagiria.

Bosgarren supra atalean jada aipatu dira aurkeztutako agiriak kontuan ez hartzeko hezkuntza administrazioaren erabakia justifikatzeko erabili diren bi argudioak.

*Alde batetik, aitortutako helbidean erroldatzea berriki egin dela eta bertara bizitzera berriki joan dela egiaztatzen dute* agiri hauek, baina jakina, hala behar zuen eta. Pentsa dezagun etxebizitzan benetan bizi dela egiaztatzeko - horretarako saiakera egiten ari da- 2015eko urrian erroldan egindako inskripzioa bera dela denboraren erreferentzia eta norainoko bakarra.

Beste alde batetik, aurkako argudio gisa esan da agiri horietako askok eskatzaileek *beharbada bakarrik jakinarazpenetarako adierazitako helbidea biltzen dutela*. Egiazki, agiri horiek ez dute, inondik inora, toki-araubideko legeriak erroldatze-agiriei aitortzen dien frogatzeko ahalmena. Erroldatze-agiriek frogatzea balioa dute bizitokia udalerrian dela eta ohiko bizitokia dela egiaztatzeko. Baina familia honek aurkeztutako agiriek, ikasleen onarpen prozesuan parte-hartzerakoan aurkeztutako errolda-agiriari aitortutako bizileku presuntzioa indargabetu beharrean, aipatu presuntzio hori berretsi edo sendotzen laguntzen dute. Gogoan hartu, bestela, ez dela ulertzen interesdunari aitortutako helbidearen errealitatea egiaztatzeko dokumentazioa emateko eskatu ziotenean, hezkuntza administrazio horrek, hain zuzen, jada aurkeztu diren agiriak entregatzeko proposatu izana.

Gauzak horrela, aldez aurretik denbora nahikoa ez denez egon, errolda-datuen gehiegizko edo iruzurrezko erabileraren zantzua ematen duen errolda-inskripzioaren egiaztagiri bat daukagu (ikasleen onarpen-prozesuan parte-hartzeko interesdunak aurkeztutakoa), baina agiri horren frogatze-birtualtasuna, toki-araubideko legerian berriaz aitortua, egiaztapen izapidean emandako agiri osagarriek indargabetu beharrean, izatekotan, baieztatu egin da, izan ere, aurkeztutako agiriak aintzat hartu ez izana justifikatzeko hezkuntza administrazioak emandako argudio bakar bat ere ezin baita jaso.

Erakunde honen esku-hartzearen harira lurralde ordezkariak egindako oharrek ere ez dute indargabetzen aurkeztutako inskripzioa honako hauek jakinarazten







dituenean: interesdunak 2015eko urrira arte itxaron zuen etxebizitza honetan, zeinaren titularkide 2012ko urritik baitzen, izena emateko eta, haren seme YYY jaio ondotik, semea aitak inskribatutako etxebizitzan inskribatzea aukeratu zuten, etxebizitza horrek irisgarritasun arazoak dituen arren; hain zuzen ere, eta familiak hala dioenez, arazo horiek direla-eta lekualdatu dira beste bizitza batera.

Bere erantzunean lurralde ordezkariak baieztatu bezala, ez dagokigu etxebizitzaz aldatzeko erabakia hartzera eraman dituen familia-egoera baloratzea. Honi dagokionez, aintzat hartu beharreko bakarra, kexa honen aurretiko azterlanaren ondorioz gauzatutako balorazioetan egin genuen bezala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2012ko abenduaren 10eko aginduaren jarraibideak dira. Agindu horren bidez, eskaerak aurkezteko eta onartzeko epeen egutegi komuna ezartzen da eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe dauden ikastetxe publikoetan zein Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatu hitzartuetan 2016-2017 ikasturtean ikasleak onartzeko jarraibideak onesten dira. Jarraibide horietan jasotakoaren arabera: *"Ikaslea aitarekin, amarekin edo lege-tutorearekin bizi den lekua izango da familiaren bizilekua. Familia-bizilekua egiaztatzeko, ikaslea aitarekin, amarekin edo lege-tutorearekin bizi dela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da"*. (Hamabigarren oinarria - bigarren puntua).

Betebehar hauek beteta eta aurkako frogarik ez dagoenez, hezkuntza administrazioak ezin du errolda-agiriak adierazten duen ohiko bizilekua izatearen frogaz baztertu bakarrik ez delako egiaztatu alde aurretiko denbora nahikoarekin hori duela bizilekua. Ikasleak 2016-2017 ikasturterako onartzeko prozesurako (2015eko abenduaren 10eko agindua) onetsitako jarraibide bakar batek ere ez du eskaintzen nahikoa babes juridikorik, prozesuan parte-hartzaile guztiak lehiatuko direla bermatzearen aitortutako etxebizitzaren errealitatea egiaztatzeko bilatzen zen helburua zilegi izanik ere.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan YYYren izenean egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia.

